

Growing the Market in Accessible Tourism (GROWMAT)

Joan den 2017ko urriaren amaieran Tesalonikako, Grezia, 26. EfVET Nazioarteko Konferentzian zehar ospatutako mahai-inguru arrakastatsuen ondorioz, Proiektuko kideak Mariborren, Eslovenia, bildu dira GROWMAT prestakuntza programen garapenarekin aurrera jarraitzeko asmoz, helburua Turismo Eskuragarriaren merkatua garatzea izanik.



GROWMAT ekimena, Erasmus Plus programaren baitan garatzen da. Proiektua ikaskuntza programa bat diseinatzen ari da, turismo eskuragarriaren garrantziaz sentsibilizatzea bilatzen duena, pertsona guztien hazkunde ekonomikoa, eskubideak eta ongizatea sustatzeko aukeraren inguruan. Proiektuaren eskutik, zahartze propioaren ondorioz adinekoko bihurtutako biztanleriarengana zuzendutako turismo merkatuak eskaintzen dituen hazkunde aukerak ustiatuko dira. Aldi berean, Ostalaritza eta Turismo sektoreko langileen prestakuntza beharrak ikertuko dira, helburua izanik horien gaitasunak eta trebetasunak eguneratzea, turismo merkatu berriaren eskakizunak bermatzea eta bezero hauen behar bereziak asetzea lortzea.

Ikastaroa TURISMO INKLUSIBOA izendatuko da, eta 4 modulu hartuko ditu barne:

1. Modulua – Sentsibilizazioa, Hedapena eta Eskuragarritasuna
2. Modulua - Turismo inklusiboa
3. Modulua - Ekintzailatza
4. Modulua - Marketina – Baliabide berezien multzoa

Hasierako LH-ko gazteengana zuzendutako ikastaro honetaz gainera, PYME, sorrera berriko enpresa eta indarrean dauden turismo negoziotarako ikastaro berezi bat diseinatua izaten ari da, barne hartzen dituen Ostalaritza eta Turismoa, Jatetxe-arloa, Destino Turistikoak, Ostatu Hornitzaileak oro har, etab.

Proiektuko partaideak izanik, kideek Turismo Eskuragarriaren Txapeldunentzako nazioz haraindiko sare bat sortu dute eta tartean sartu dituzte Txapeldunen sarearekin bat egin nahi duten sektoreko erakundeak zein pertsonak, jardunean aritzeko. Erakunde horietako bat, Erresuma Batuko "Visit Guildford" izendatua, gure kidetako baten bisita jaso ondoren, oso interesatuta azaldu da proiektuan parte hartzeko.

Jarraian, elkarrizketa hala nola etorkizuneko bere kolaborazioaren inguruko adierazpenak dakartzan laginen laburpen txiki bat irakurri ahal dira.

"Visit Guildford"




Kofinantzatua Europar Batasuneko + Erasmus programaren bidez

"Europar Batzordeak argitalpen honen ekoizpenerako emandako laguntza ez dator babestera autoreen iritziak soilik izlatzen dituzten edukiak, eta Batzordea ez da arduratuko horietan barne hartutako informazioarekin egin daitekeen erabileraz"

Growing the Market in Accessible Tourism (GROWMAT)

“Visit Guildford” txapeldun sutsuek jadanik lanean jarri gaituzte. Gure esker ona adierazi nahi diogu Diana Roberts Marketin eta Turismoaren Garapenerako Zuzendariari, gonbidatu izateagatik Tracey Torble, T2 Consulting, joan den 2017ko ekainean Erresuma Batuan Guildford hiriko Destino eta Ikuskizun Turistikoen ordezkarien eskutik ospatutako hiruhileko bileran zehar proiektuaren helburuak barreiatzera.



Surrey konderrian finkatutako Guildford hiria, paradisuaren pareko eremu herrikoi eta lasai bat da, Londresko hirira azkar eta erraz sartzeko bidea ematen duena. Guildford hirian jadanik eskugarritasun plan oso aurreratua dago indarrean eta une hauetan bere arrakasta aprobetxatu nahi du merkatuko aukera berriak garatzeko.

Bisitari turistak, alegia hiru belaunaldi, aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak, barne hartzen dituen turismo bisitariaren errealitatea abiapuntutzat hartuta, aitortzen dute guztiei ongi etorria emateak eskuragarritasun beharrak hobeto ulertzea eta gutxiengo batenaz haratago pertsona guztien beharrekin egokituko den dimentsio bat lortzeko lanean jardutera eramaten dituztela. Bileran zehar adibide argigarri ezberdinak eta batez ere errealak entzun ahal izan ziren, behar bezeriak, derrigorrez fisikoak izan behar ez direnak, dituzten pertsonentzat bisita arrakastatsuak bermatzeko ezinbesteko planifikazio konplexuaren inguruan eta oso positiboa gertatu zen hobekuntza proposamenak eta irtenbide nahiko sinpleak entzutea.

Hori da GROWMAT proiektuaren helburua, modu berritzailean pentsatzea, bezero potentzialen ahalik eta kopuru handiena kontuan hartuta harrera proaktiboaren jarrera garatzeko eta horrez gainera guztiontzat esperientzia inklusibo, berdinzale eta eroso eskaintzeko. Kontua ez da soilik gurrpil-aulkietarako sarbideak eraikitzea.




Kofinantzatua Europar Batasuneko + Erasmus programaren bidez

"Europar Batzordeak argitalpen honen ekoizpenerako emandako laguntza ez dator babestera autoreen iritziak soilik islatzen dituzten edukiak, eta Batzordea ez da arduratuko horietan barne hartutako informazioarekin egin daitekeen erabileraz"

Growing the Market in Accessible Tourism (GROWMAT)

Proiektuarekin aurrera egiten dugun neurrian, gure asmoa da "Visit Guildford" taldearekin lanean jarraitzea; bere esperientzia gure ikastaroa garatzeko funtsezkoa da eta izango da.



Informazio gehiago eskuratzeko: Bisitatu Growmat-en web orrialdea: www.growmat.eu.

Koordinatzailea
Cdea, Espainia

Kideak
Age UK, Erresuma Batua
P-Consulting, Grezia
T2 Consulting, Erresuma Batua
Errotu, Espainia
SSGT, Eslovenia
Haaga-Helia, Finlandia

EfVET, Europa eta Belgika



Kofinantzatua Europar Batasuneko + Erasmus
programaren bidez

"Europar Batzordeak argitalpen honen ekoizpenerako emandako laguntza ez dator babestera autoreen iritziak soilik islatzen dituzten edukiak, eta Batzordea ez da arduratuko horietan barne hartutako informazioarekin egin daitekeen erabileraz"